



b

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

574. zkia.

XIV. urtea

2006ko ekainaren 2a

Saharaviak: 30 urte justizia aldarrikatzen



ELGOIBARKO BH INSTITUTUA

2006/07 IKASTURTEA

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbh.net
www.elgoibarbh.net



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika
Karrozeria, txapa eta pintura
Merkataritza
Erizaintza laguntza osagarriak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa
Administrarritza eta finantzak

Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 7ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuena, enpresa simulatuak, lan praktikak Europan, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.



Gure erakusketa bisita ezazu!



GAUDI KOLTZOIA

Neurri guztiak ditugu!!



- **MULTISAC + THERMOLASTIC:** Gorputzaren egokitze perfektua presio puntuak gubitzean.
- **"MICROSIL" teknologia:** moldaeraztasun eta erresistentzia handia.
- **Ehunaren multi-tratamendua:** higiene, erosotasun eta gorputzaren zaintzan garantia osoa.

1'35 x 1'90 neurriko koltzoia **495 €**

Zatoz koltxoi nordiko berriak ikustera!

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

Merkadillokoen kontrako epaiketak ez!

Merkadilloaren gatazkan 12 hilabete manifestazioekin, kontzentrazioekin, herri galdeketa, negoziatzeko saiakerak, bitarteko eskaintzak eta abar luze baten ondoren, merkatariek erabaki zuten Elizako arkupeetan postuak jartzea. Eta horrela egin zuten heritarren bultzadarekin. Hori ez zen Mariviren gustukoa eta eridikulua egin zuten Elizaren inguru guztia barandilaz eta udal kotxeekin betetzen. Baina langile hauen kontrako salaketa jarri zuten Eibarko epaitegian lehenengo egunetan. Akusazioa: aginteari men ez egitea. Hasieran epaile batek pentsatu zuten merkadillokoek egindakoa falta bakarrik litzatekeela, eta ez delitua. Hala ere, alkateak errekurritu zuten egindakoa delitutzat hartua izan zedin, honek suposatzen duenarekin.

Eta beste epaile batek onartu du errekurtsua. Beraz, merkadilloko 13 merkataria (Celestino Zubiaurre eta Jesus Zamorano elgoibartarrak bame) deklaratzera behartuta daude eta kartzela zigorraren mehatxua beraien bizkarraren gainean dago. Eta noiz errekurritu zuten alkateak? Abenduaren 27an, merkadilloak Plaza Txikian 3 aste zeramatzanean eta gatazka konpontzeko bidean sartua zegoenean. Horrek erakusten du alkateak ez zuela lehen eta ez duela orain ere gatazka konpontzeko asmorik. Hanka sartu zuela konturatu zenean, konponbidea bilatu beharrean, Elgoibar Bizirik-ek eta beste erakundeek egindako eskaintza guztiei ezetz esan zien Marivik eta bizkarra eman zion heritarren nahiri.

Guk uste dugu aurrera begiratzeko eta gure herriaren alde egiteko unea dela. Mendekua ez da bidea. Horregatik publikoki eskatzen diogu alkateari salaketa bertan behera uzteko eta alkatea sostengatzen duten talde politikoei (PNV eta EA) heritarren nahiri kasu egiteko. Heritarrek erabaki dute. Merkatariek eta tabernariak ere bai. Elgoibar Bizirik-ek antolatutako inkestan azken hauen erantzuna garbia izan da: merkadilloa erdialdean eta aparkalekuak behar direla.

Epaiketak eta isunek (600 € kontzentrazio bat antolatzeagatik) suposatzen duten gastuari aurre egiteko zozketa bat antolatu dugu. Boleto bakoitza euro baten truke eta saria: 1.000 € Elgoibarko establezimenduetan gastatzeko. Dei egiten dizuegu zuten aportazioa egin dezazuen. Berriz ere, mila esker elgoibartar guztiei!

ELGOIBAR BIZIRIK HERRI EKIMENA

AHT gelditu! Elkarlana

Abiadura handiko trenari oposizioa erakusten dioten hainbat talde eta erakunderen arteko AHT Gelditu! Elkarlanak gogor salatzen du Eusko Jaurilaritzak eta Espainiako gobernuak "Euskal Y" deritzon proiektuaren obrak hasi izana. Heritar guztiei mobilizatzeko deialdi berezia egiten diegu. Hortaz, datozen egunetan "AHT gelditu! Inposaketarik ez! Herriz herri antolatu eta erantzun!" lemapean egingo diren mobilizazio dezentralizatueta, herriz herri eta eskualdeko kontzentrazio eta batzarretan parte hartzeko dei egiten dugu, hain zuzen ere, AHTren inposaketak jendartearen

eragiten duen desadostasun irmoa adierazteko eta ingurumenari, nekazaritzari, ekonomiarri, lurralde orekari eta ondorioz gizarte osoari hainbeste kalte ekariko liokeen egitasmoa geldiaraztearen herri mugimendua hedatzeko.

AHTren obrak negozio itzela dira PNV eta PSOEn inguruan dabilzan eraikuntza-enpresen artean banatzeko inolako lotzarik ez dute. Honek ederki asko erakusten du gainera 3.000-6.000 milioi euro arteko aurrekontua duten Gipuzkoako zatien kudeaketa bere eskuetan hartzeko, Eusko Jaurilaritzak agertu duen arduraren arazoia zein neurrikoa den: interes partidistak nahastu dira AHTren finantzaketan eta administrazioek ehunka milioi euro hartuko dituzte, baliabide publikoak hipotekatzeko arriskuan jarri.

AHT Gelditu! Elkarlanak salaketa larria adierazten du oztopo guztien gainetik AHTren aurkako oposizioa azkartzeko eta egitasmo anti-ekologiko eta antisozial horren inposizioaren kontrako herri mugimenduak sustatzeko. Behar beharrezkoa datorren abagunean herri guztietan eta erakunde guztietan ekintza informatibo zabalak eta mobilizazio indartsuak antolatzea, ondorio ekologiko eta sozial onartezina eraginda, erakundeetatik inposatu nahi zaigun produktu txikitzaile hori geldiarazteko eta egungo garraio eta gizarte eredu koloka edo eztabaidagarri jartzeko. Bukatzeko, ekainaren 10ean Donostian AHTa gelditzea eskatzeko egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egiten dugu.


ELGOIBARKO GAZTE ASANBLADA



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: baren@elgoibarkoizama.com

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala **KAZETARIK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriando, Amaia Ekizoa **MARKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Uxue Alberdi, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorostategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Jesus Mari Makozaga, Ainhoa Mendibil, Alain Ulazio, Alaitz Vives, Kokoe KE, Umuzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESKARIA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutegia **INFORMATZEA** Geru **TIRADA** 4.420 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

TXALOAK

- Eskubaloi zaletu batzuk **jubenilak eta kadeteak txalotu nahi dituzte**: "Aupa txapeldunak! jardunaldiz jardunaldi jarraitu zaituztegunok eskerrak eman nahi dizkizuegu. Zorionak, merezitako saria lortu duzue-eta!".

- **Herriko lorategiak oso dotore daude**: "Sekulako poztasuna ematen du herriko lorategiak ikusteak. Lorez eta kolorez beteta daude, benetan politak. Gehiago zaindu beharko genituzke honelako detaileak".



KEXAK



- **Herriko zebrabide asko ezin dira erabili**: "Oinezkook zebrabi-deetatik ibili behar garela gomendatzen duen kanpaina murgilduta gauden honetan, Elgoibarren bi tokitan gutxienez, ezin dira zebrabideak erabili. Gurpildun aukian dabilen jendea edo ume txikiak aukietan eraman behar ditugunok, oztopo bat baino gehiago aurkitzen ditugu. Santa Ana kaleko Eroski parean da goen zebrabidea edukiontzi batean bukatzen da eta San Lazaro egoitza parekoa, autoz beteta edo inguruko tabernetako mahaz beteta egoten da. Paradojikoak, ez?"

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 943 74 41 12

komikia

Hil da gero...



Kokoe 061

Gau-eskolatik euskaltegieta 50 urtean

2000-2002 urteak: ARIGERA proiektua

1997an hasi ziren AEK euskaltegia, Udal Euskaltegia, Udala eta Elgoibarko Izarra gure herrian helduen euskalduntze-alfabetatzea indartu egin behar zela pentsatzen. Hamaiika batzar eta gogoeta egin ondoren, 2000. urteko urtarrilean aurkeztu zuten ARIGERA proiektua.

Zer lortu nahi zen ARIGERA proiektuarekin? Hona sorrerako txostenean ikusi dugunaren entresaka bat:

- 56an bezala, 2000. urtean ere jendea euskara ikastera animatu behar zela ikusten zuten ARIGERAKO eragileek (biztanleen % 30ak ez zekien euskaraz).

- Bestalde, euskara ikasten ari zenari lagundu egin behar zitzaioela ikusi zuten. Ikasleek egiten zuten esfortzuaz jabetu eta, ahal zen neurrian, haiei laguntzea zen beste helburuetako bat.

- Hirugarrenik, euskaltegi lana ez zela nahikoa irizten zioten, eta errefortzu egitasmoak prestatu nahi zituzten. Gainera, euskaldun zaharrak inplikatu nahi zituzten ikasleei laguntzeko orduan (hemendik sortu zen *Tertuliak* egitasmoa).

- Azkenik, eta lau helburu baino ez aipatzeagatik, euskalgintzako sektore honi merezi zuen garrantzia eman nahi zioten. Izan ere, egiten den lana ezkutuan geratzen den errezeloa zeukaten, eta hau gaingidu nahi zuten.

Helburu hauek eta beste batzuek lortzeko intentzioarekin, lan batzorde bat osatu zuten eta teknikari bat ere kontratatu zuten (Amaia Arrizabalaga).

Hiru urteko lanaren ondoren, helburu batzuk betetzea lortu zen; sektorea bistaratzea eta ezagutzera ematea, adibidez. Eta *Tertuliak* programak ere oso harrera ona izan zuen (gaur egun ere 24 ikasle pasak parte hartzen dute). 2002ko abenduan bertan behera geratu zen Arigera proiektua, helburu batzuk bete zirelako, eta eragileek aurrera egiteko aukerarik ez zutelako ikusten.



**TXUS
GOMEZ**

AEKko
IKASLE OHIA

Gurasoak erdaldunak izanik, Txus Gomez elgoibartarra erdal giroan hazi zen. 24 urte zituela, euskaltegian eman zuen izena. Bi urtez jardun zuen euskara ikasten eta barmetegia ere ezagutu du. Gaur egun, bere kabuz saiatzen da euskara maila hobetzen.

• Noiz hasi zinen euskara ikasten?

24 urte nituenean hasi nintzen euskaltegiara joaten. Elgoibartarra eta euskalduna izanik, euskara ikasi behar nuela erabaki nuen.

• Zer moduz euskaltegian?

Hasieran ez nuen ezer ulertzen, baina poliki-poliki belarria ohitu egin zitzaidan. Gehiena entzunez ikasi dut, eta hori ez da ahazten. Hitz egiteko erraztasuna falta zitzaidan eta barmetegira joateko esan zidaten euskaltegian.

• Barmetegia ere ezagutu duzu, beraz...

Bai, lau hilabete egin nituen Gernika inguruko barmetegi batean. Han ikasi nuen benetan euskaraz hitz egiten. 24 orduz euskaraz egiten genuen, lo egiteko bakarrik deskantsatzen nuen. 6 orduz eus-

kara klaseak izaten genituen eta honetaz gain, mintza praktika asko egiten genuen. Handik itzuli nintzenean utzi nion euskaltegiara joateari. Maila nahiko ona lortu dut eta orain nire kabuz hobetzen saiatzen naiz, telebista euskaraz ikusten, irakurtzen edo irratia entzuten.

• Zaila al da euskara ikastea?

Bai, niretzako aditzak ikastea izan zen zailena. Aditzekin hasi ginean blokeatu egin nintzen, ez nuen aurrera egiten. Barmetegian aholku on bat eman zidaten: "ahaztu aditzekin eta segi aurrera". Halaxe egin nuen, aditz asko ez dakizkit, baina gehienetan aditz berdinak erabiltzen dira. Lotsa galtzea da euskara ikasteko garrantzitsua.



Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ. ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE! IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Telebisua»

Guk umetan ez gendukan telebisorik etxian. Guk erosi gendunerako, jende askok zakan, ez giñan lehenenguk izan. Gure amantzako izan zan sekulako ilusiva. Bera ez zan etxetik urtetzen, eta oso andra argixa zan; irakurtzia asko gustatzen jakon; andra fiña zan.

Telebisuak kanpoko notiziak ekarri ziguzen etxera, eta gehixen aprobetxau zabana ama izan zan. Aittak ere bai, eh? Anekdotak politta daka gure aittak. "Demencia senil" esaten dana zakan pixkat gure aittak, pixkat burua galduta, bestela oso gizon fuertia eta osasuntsua zan. Telebisuari begira zagan behin, baiña igual atendidu ere ez zaban egingo. Halako baten agertu zan Lola Flores, lehenengo plano baten, eta laztan bat bota zaban ikus-



le guztixentzat, eta gure aittak esan zion: "gracias, guapa".

Graziosua izan zan, harek beretzat zala laztan haura pentsau zaban. Txiste bezela kontatzen dogu gaur egun anekdotak hau. Inbento ona izan zan telebisua.

[GURE BERBAK]

Esaldi osagarri batzuk (4)

Gauzak zeren arabera diran adierazten deben egiturak, horra gaurko esaldi osagarri-
xen adibidia. Gaztelaniaz, SEGÚN eta DE-
PENDE erabillita osatzen dira holakuek; euske-
raz ere, azken urtietan, erabiltzen da batzue-
tan SEGUN hori (DEPENDE -eskerrak!- ez
hainbeste), erosua dalako, nunbait; baiña
gaurku horren ordeko egitura bat erakutsi-
ko dogu, hori baiño egokixagua eta euskeraz
tradizixo senduangua daukana, gaiñera; ze-
hargalderak dira, ziharka egindako galdera ti-
pora osatzen diranak. Horrek dira euskaldu-
nak menderik mende erabili dittuanak, eta nik
hobetsiko nittuzkeenak. Hona adibide batzuk:

1) - *Familixa danetan dagoz bi-hiru, ez da-
kitt zenbat kotxe. - Zenbat seme-alaba dau-
den, hainbeste bihar.*

2) - *Zuk pentsatzen dozu gogorra dala ba-
sariko lana? - Basariko lana? Bueno, zela
hartzan dan da (kontua).*

3) - *Asko irabazten omen jok horrek! - Etxa-
kixat. Zertara ohittuta dagan! Zenbat diru-
kin konformatzen dan!*

Jesus Mari Makazaga



ESKERTZA

2006ko maiatzaren 26an, 63 urte zituela hil zen
Mª Carmen Azpiazu Zubizarretaren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2006ko maiatzaren 30ean hil zen
Amado Garate Bacidaren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LAN MUNDUAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANAK

ENPRESAK EUSKERAREN ALDE


Euskara gizarte esparruak irabazi nahian dabil azken urte hauetan: komunikabideak, irakaskuntza, administrazioa... Lan mundua eremu estrategikoa da euskararen etorkizuna bermatu nahi bada. Hainbat erakunde eta enpresek heldu diote erronka horri euskararen normalizazio planak abian jarritz. Debabarreneko Udalak ere, aspalditik ari dira euskararen erabilera bultzatzen hainbat eremutan. Oraingo honetan, indarrak batu eta euskararen normalizazioa lortzeko estrategikoa den arloa elkarrekin landu nahi izan dute eta lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko plana prestatu dute. Erronka horri Elgoibar, Mendaro, Eibar, Deba, Mutriku eta Soralezeko Udalek heldu diote. Gaurkoan, Oihana Jausoro EMUN Aholkularitza enpresako teknikariarekin berba egin dugu gai honi buruz. Bestalde, Elgoibarren euskararen alde lanean ari diren bi enpresetako nagusien iritziak jaso ditugu.



Enpresetan euskararen erabilera sustatzeko planaren aurkezpena egin zen martxoan.

EUSKARAREN BILAKAERA ENPRESA MUNDUAN

Oihana Jausoro EMUNeko teknikariak azaldu digu noiz eta nola hasi zen enpresak euskalduntzearen fenomenoak: '90. hamarkadan lan handia egin zen euskararen erabilera lan-munduan areagotzeko mikropiangintzen bidez. Izan ere, hainbat enpresetan (Antzuolako Elayn, Arrasateko Ikerlanen, Loiuako Arlanen, Beasaingo CAFen, eta beranduago, Debagoieneko MCC Zerbitzuak eta Ederlanen) Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, plan pilotuak jarri ziren martxan. 1991n abiatutako dinamika zabalpen nabarmena izan du eta



JESUS MARI ASTIGARRAGA

Danobat Koop. E.ko Kontseilu Errektoreko lehendakaria

"Dagoeneko zazpi urte dira Danobaten euskararen erabilera bultzatzeko ahalegin formala egiten hasi gine-la eta Debagoienan enpresa gehiago bazeuden ere Debabarrenan aintzindari izan ginen gai honetan.

Langileen ehuneko handi batek zekien bai orduan eta baita orain ere euskaraz (%70 inguru) baina gure arteko hartu emanak, dokumentazioa... gaztelaniaz erabiltzen genituen euskararen aldeko apustu bat egitea erabaki genuen.

Epe luzera begirako plan bezala ikusten genuen eta denbora ere horixe ari zaigu erakusten, poliki-poliki gauza

asko eta asko egin ditugu eta eguneroko harremanetan euskara askoz gehiago erabiltzen dugu orain, bai ahoz eta baita informatikoki, dokumentazioan... Plana luzera begirakoa da ordea, eta datozen belaunaldi gazteentzako prestatzen ari gara orain enpresa.

Gai hauek arrotzak zirenez hasieran guretzat eta ez genekienez nola jokatu Arrasateko Emun Koop. Eren zerbitzuaren laguntzaz jarduten dugu.

Honen bidez Debabarreneko beste enpresa batzuk ere animatu nahiko nituzke, pauso txikiekin aurrera egiten baita bidean".

gaur egun 150 enpresa inguruk daukate euskara plana martxan. Gero eta enpresa txiki eta ertain gehiago animatzen da dinamika honetan sartzen eta elkarte anonimo, elkargo eta antzekoen portzentajea ere goraka doa”.

JARRAIPEN BATZORDEA

Euskararen normalizaziorako plana aurrera ateratzeko Jarraipen Batzorde bat osatu da Debabarrenean. Batzorde hori, Udaletako agintari, euskara teknikari, sindikatu, Debegesa eta euskara plana duten enpresetako ordezkariak osatzen dute. Horrez gain, lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko plana aurrera eramanean ahal izateko, Debabarreneko Udalek EMUN Hizkuntza Aholkularitzaren laguntza izango dute. EMUNek euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu eta inplementatzen ditu enpresetan, erakunde publikoetan, eskualdeetan...

HELBURUA

Helburu nagusia enpresa batzuetan euskara plana martxan jartzea da, hau da, enpresan euskararen erabilera normalizatzea. Oihanak esan digunez, “2006an hasi gara planaren barneko lanekin. Jarraipen batzordea osatzen duten Udal teknikari, sindikatu eta Udal agintariei zuzenduta prestakuntza saiokak egin dira. Debabarreneko planaren inguruko komunikazio plana ere diseinatu eta zabaldu da. Debabarreneko hainbat enpresarekin harremanetan jartzea izango da hurrengo pausua. Elgoibarren 50 langiletik gorako 10 enprekin jarriko gara harremanetan berarek bisitatzeke eta enpresetako euskara planen inguruko informazioa zabaltzeko helburuarekin. Mendaron aldiz, 5 izango dira bisitatuko diren enpresak”.

ELGOIBARKO ENPRESAK EUSKARAZ LANEAN

Badira Elgoibar inguruan enpresak non euskara plana inplementatzen esperientzia aipagarria dutenak, adibidez Danobat taldeko hainbat kooperatiba, Etxepe, IMH Makina Erremintaren Institutua, Kondia, Gorosabel, Urkunde... Etorkezunari begira lan mundua euskaldundu eta enpresek euskaraz funtzionatzea nahi da.



Etxepeko bazkideak: Felix Etxeberria, Peli eta Xabier Uriguen eta Karmelo Bilbao. Etxeppek bere kabuz ekin zion enpresan euskara bultzatzeari.

FELIX ETXEBERRIA eta KARMELO BILBAO

Etxepe enpresako bazkideak

“1973an enpresa sortu zen egunetik, bazkideok argi izan genuen enpresa honek euskaraz egin behar zuela lan eta gainera, euskararen erabilpenaren aldeko jarrera markatua izan behar zuela. Horregatik, estatutuetan ere aipatzen da eta hauek ere bereziki euskaratzea eskatu zen. Kanean zein enpresa munduan horrelako jarrera bat komeni zela iruditu zitzaigun eta horregatik sortu genuen enpresa bide honetatik. Hemen lan egiteko euskalduna izatea ezinbestekoa da. Beste edozein enpresatan bezala, lan egiten den hizkuntzara moldatzea oinarria da lankideekin konpontzeko eta Etxeperen funtzionamendua euskaraz da. Hala ere, enpresa mundua erdalduna da oraindik. Orokorrean enpresen arteko tratua gehienak eta baita dokumentazio ofizialak ere gaztelaniaz dira. Guk dokumentu

ofizial guztien karatula bi hizkuntzatan ditugu, euskaraz letra handiago eta beltzagoekin eta gaztelaniaz txikiagotan. Orri hauek euskaraz betetzen ditugu, baina hitz tekniko asko ulerterrazak dira bi hizkuntzetan eta gainera artikulua kodea dute gehienetan. Ohar bereziak edo antzekoengatik galdetzeko bakarrik deitu ohi dute gutxi batzuk. Poliki-poliki hasi da euskara enpresetan sartzen eta badira enpresa euskalduntzeko pausuk ematen hasi direnak, Euskal Herrian eta baita Elgoibarren ere. Zoritxarrez gutxiengoak dira oraindik. Hala ere kanporako tratuetan ez da normalena oraindik lehenbiziko hizkuntza euskara izatea. Enpresetan euskararen erabilpena normalizatzeko bidea oraindik luzea da, eta asko hobetu daiteke. Bakoitzak bere lanean pixkat egingo bala...”

[PROTAGONISTA]



TxominMujika

Txomin Mujika musikari elgoibartarra izango da Bilboko Bilbao Musika Elkarteko zuzendari berria. Bilbao Musika Bilbaoko Udaleko Euskara eta Kultura Saileko elkarte da. Bere baitan Musika Eskola, Musika Banda, Txistulari Banda eta Ikkasfolk taldea sartzen dira. Ekonomia Lizentziatua izateaz gain, Txomin Mujikak musika ezagutza handiak ditu: Udal Musika Bandan tronoa eta bonbardinoa jotzeaz gain, bandako zuzendari ordea da 1984. urtefik. Txistua eta dultzaina ere jotzen ditu, eta konpositore lanak ere egiten ditu. Erronka berri honi ilusioz ekingo dio.

[NOTIZIA]

Ekaina amaierarako eramango dute ostegunetako azoka Sigmar

Elgoibarko Udala Sigmarako azoka postuentzako banaketa prozesua garatzen ari da. Saltzaileen artean, eskutitz personal bat banatu dute, informazio orri bat eman zaie, bertan formularioa eta salmenta baimena eskatzeko aurkeztu beharreko agirien berri emanez. Postua Sigman jartzeko interesa duten guztiek gaur arteko epea dute beraien eskaerak aurkezteko. Postuak eskaeren arabera banatuko dira, eta Udaletik adierazi dutenez, jarritako epean eskaera orria aurkezten ez duenak, ez du Sigman lekurik izango.

Ekaina amaierarako Sigmar

Eskaera guztiak jaso bezain pronto, saltzaile bakoitzari dagokion kokalekua eta izango duen lekua eskainiko dio Uda-



lak Kokalekuen banaketa lehenbailehen egiteko asmoa dauka Udalak, eta esan digutenez, ekainaren amaiera alderako ostegunetako azoka Sigman egotea espero dute.

[ZENBAKIA]

165.278

Elgoibarko Udalak 165.278 euro inbertituko ditu San Bartolome parrokia aurreko ingurunea berritzen. Foruen Plazako egitea da helburua,

hau da, plazako harri berbera erabiliko da. Bestalde, jarleku berriak ipiniko dira eta oraingo zuhaitzen lekuan gereziondoak jarriko dira.

[ARGAZKIA]



Praka motzak eta kamiseta txuri gorria erantzi, eta soineko dotorez jantzita ageri zaizkigu Athletic taldeko neskek. Euskal Herriko Odol Emaitzen Elkarteak martxan jarri duen kanpainari babeserik emateko ekintza izan da. "Odola ematea irabaztea da" lelopean, Euskal Herriko odol emaitzen kopuruak gora egitea da helburua, batez ere, odol emaitze gazteak nahi dituzte. Erretratu dotore honen erdian ikus ditzakegu bi jokalaririk elgoibartarrak: Goian, ezkerretik hasita laugarrena Eli Ibarra eta aldamenekoa Itziar Gurrutxaga.

Iraunkortasunerako Ekintza Planaren lerro estrategikoak azalduko ditu Udalak



Udalak Elgoibarko Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana onartu zuen urte hasieran. Plan honek, Udalak datozen 6-8 urteetan aurrera eramango dituen ekintza iraunkorrak biltzen ditu. Ekintza hauek Agenda 21 proiektuko zutabeetan oinarritzen dira: gizartea, ekonomia eta ingurumena.

Lerro estrategikoak

Iraunkortasunerako Plan honetako hainbat ekintza martxan daude dagoeneko. Udalak, prozesu guztian zehar, herri-partaidetza izan du kontuan, eta datozen

egunotan, Planak batzen dituen hamalau lerro estrategiko publiko egin nahi ditu. Hori dela-eta, Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Sailaren laguntzarekin, liburuxka bat argitaratu du, eta egun hauetan zehar Elgoibarko etxeetan banatzen ari da. Liburuxka honetan aurkezten den Ekintza Plana, Agenda 21 proiektuaren diagnostia egin ostean eman den bigarren pausoa da. Udalak gogorarazi nahi du, Iraunkortasunerako Plan honen helburu nagusia Elgoibarko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea dela, garapen orekatuaren eredia bermatzeko.

[MOTZ-MOTZIAN]

Pako Juaristiri omenaldia

Elgoibarko Izarrak, Udal euskaltegiak eta AEKk Udalaren laguntzaz, omenaldia egingo diote Pako Juaristiri datorren ekainaren 8an, arratsaldeko 19:00etan Musika Eskolako Auditorioan. 50 urte bete dira aurtan Elgoibarren Gau-Eskola martxan jarri zenetik. Pako Juaristi elgoibartarra izan zen ekimen honen motorra.



Andrea Etxaniz Bai ala Ez lehia- ketako irabazlea


Hilabete honetan Andrea Etxaniz izan da BARRENe bai ala ez lehia- ketako irabazlea. Kresala Talasoterapia hotelean bi laguntzako zirkuitoa irabazi du. Datorren hilean, Gabi jatetxean bi laguntzako afaria zoz- ketatuko dugu.



Nagusientzako oporraldiak

Inersok antolatzen duen Nagusientzako programan parte hartzeko epea zabalik dago. Udako opor programa honetan parte hartzeko interesa dutenek, Udaleko Ogizate Sailean edo Jubilatuen Egoitzan jaso ditzakete izena emateko dokumentuak ekainaren 15a baino lehen.

Pablo Ibar presoari elkartasuna adierazi dio Udal Plenoak



PSE-EE alderdiak Floridan preso dagoen Pablo Ibarren aldeko mozioa aurkeztu zuen Udal Plenoan, eta aho batez onartu zuten guztiek. Ibarren familiari bere elkartasuna adierazi dio Udalak, mozioa Floridara bidaliko dute, dirua biltzeko kontu korrontea irekiko da eta heritarrei Floridako espetxera gutunak bidaltzeko eskaria egin zitzaizkien. Bestalde, Udal Batzorde berria eratu zenetik hiru urte pasa direnez, Iñaki Odriozola Einbiouko kideak komunikatu bat irakurri zuen, Udalari pauso berriak eskatzeko. Ezker Abertzaleko zenbait lagunek kartel bat zintzilikatu nahi izan zuten eta udaltzainek ez zieten laga.

Inkesta

Gero eta borroka gehiago dago zapatu arratsaldeetan Elgoibarko kaleetan.

Zein izan daiteke zapatu arratsaldeetako borroka giroa baretzeko irtenbidea?

ALICIA OSORO
Etxekoandrea
35 urte



“Ertzantzaren presentziak baretu dezake pixkat egoera, baina gurasoek lan gehiago egin behar dute seme-alaben heziketan, edukazioa etxetik hasten da.”

JULEN AGIRRE
Tabernaria
46 urte



“Ez da erraza! Azkenaldian zapatuetakoa egoera zikindu egin da eta zaila da konpontzea. Agintariek konponbideren bat topatu behar dute berandu baino lehen.”

AINARA LADRON
Kamareroa
22 urte



“Ertzainek badakite nortzuk diren borrokara etortzen direnak, baina ez dute ezer egingo. Euren lana egingo balute egoera hobetuko litzateke, baina ez da biderik onena.”

ROBERTO RODRIGUEZ
Komertziala
37 urte



“Etxean dago arazoa. Gurasoek eman behar diete seme-alabei edukazioa, eurak arduratu behar dira, eta ondo jakin seme-alabak non eta nola ibiltzen diren.”

[BAI ala EZ?]

Heroina sendagarri moduan erabiltzearen aldekoa zara?

BAI %92

“Bai, arriskutsua ez bada eta dependentzia kontrolatzeko gai badira, ondo iruditzen zait. Sendatzeko edo mina kentzeko gaitasuna badu, zilegi da erabiltzea.”

EZ %8

“Ez. Azken finean droga bat da heroina, oso arriskutsua gainera, heriotza dakarrena eta dependentzia handia sortzen duena. Nahia nuke ez erabiltzea.”

Datorren asterako... **Dopinak berriro ere zikindu du txirindularitza mundua.**
Dopina kirol guztietara zabaldua dagoela uste al duzu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

1956-2006: GAU-ESKOLATIK EUSKALTEGIETARA 50 URTEAN


PAKO JUARISTI gogoan dugula OMENALDIA



*“50eko hamarkadako iluntasunean, Pako izan zen lehen argia.
Bera izan zen arima eta motorra”*

Ekainak 8, eguena
19:00etan
Musika Eskolako auditorioan

Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia • **Babeslea:** Elgoibarko Udala
Laguntzaileak: Foru Aldundia eta Eusko Jauriaritza



TRINITATE ELIZA

MENDAROKO ERAIKINIK ZAHARRENA

Mendaro oraindik Mendaro ez zenean, Trinitateko eliza bazen. Alegia, Trinitate eliza da Mendaroko eraikinik zaharrena. Historialariek ez dute noiz eraikia izan zen jakin ahal izateko daturik topatu, baina oso aintzinakoa dela zantzarik ez ei dago. Harrigarriena gaur egundaino zutik iritsi izana da, eta hala izan bada, mendaroarren ekimenez izan da. Mendarozabal auzoa Trinitate jaiak ospatzeko prestatzen ari den honetan, Trinitate eliza zaharberritzeko dagoen proiektuaz berba egin dugu Antonio Iriondo "Kapain"ekin.

Aurtengo Trinitate jaietako nobedade nagusienetakoa Mendarozabalgo Trinitate eliza eraberritzeko proiektuaren aurkezpena izango da. "Datorren ekainaren 11n, Trinitate Egunean, jarriko dira egitasmoaren planoak jendearentzat ikusgai elizan bertan" azaldu digu Antonio Iriondo "Kapain"ek. "Udalak finantzatu du 6.000 euroko proiektua, eta nahitaezko lehen urratsa da, eliza konpontzeko dirulaguntzak eskatu ahal izateko". Aurten gisa honetarako lanetarako fondorik geratzen ez denez, bultzatzaileek datorren urtean eskatzeko asmoa adiera-

zi dute. Teilatuan egingo da esku-hartzerik handiena, egoerarik okerrean dagoena baita, eta ahal den neurrian, jatorrizko egitura emango zaio. Diputazioa obra zibilaz bakarrik arduratuko litzateke, hau da, tente mantentzeaz, "barrikaldea ere txukundu nahi dugu, ordea, eta mendaroarren laguntza ezinbestekoa izango da. Hortaz, unea iristen denean, guztiok jarri beharko dugu gure aletxoak, Mendaroko eraikinik zaharrena zaintzen laguntzeko, izan ere, gure arbasoen arretari eta garaikide batzuen gogoari esker iraun baitu gaurdaino. Horrenbeste urtean tente egon ostean, hainbeste aurrerakuntza, teknologia eta askakuntza dauden garaietan gure zaharrek bitartekorik gabe zutik eutsi zuten tente mantentzeko kapaz ez bagara penagarria litzateke".

EUSKAL HERRIKO ELEIZARIK ZAHARRENETAKOA

Juan Jose Goikoetxea historialariak "Historias de una Gipuzkoa desconocida" liburuan jasotzen duenez, Trinitateko eliza, Astigarribiako San Andres baselizarekin batera, Mendaroko eta bailarako zaharrena da. Markina aldeko aintzinako bi-

zilagunak Arno mendiaren inguruetara hurbiltzen zirenean bi aukera ei zituzten; Trinitateko elizara jo edo Zenarruzakora, bi hauek besterik ez zeuden-eta. Mendarorantz jaitea aukeratzen zutenek urrunean ikusten zutenean Trinitate-bista deitzen zioten eta Kredoa erreztatzeko ohitura zuten.

Eraikuntzan ageri diren materiale ongi bereiztuek elizak berrikuntza bat baino gehiago jasan duela argitzen dute; garai ezberdinak erraz antzeman daitezke. Dirudienez, hexagono itxurako eliza izan zen hasieran, egungoa baino baxuagoa, kareharriz egina eta lau babes zutabez osatua. Bigarren fase batean errekatoko harriekin eta burdinoletoako soberakinekin eta landutako kareharriz amaitu ziren handitze lanak 1663. urtean; ur bedeinkatu ontzian agetzen den data, hain zuzen ere. Azken eraikuntza faseko lanen arduraduna Lucas de Longa arkitektoa izan zen, Martin de Garatechearen laguntzarekin. Dirudienez elizak ez dauka balore artistiko handiagirik, aintzinasuna eta horrenbeste urteren ostean gureganaino iritsi izana da Trinitateko elizaren meriturik handiena.

TRINITATE JAIK

Elizaren aurrean ganadu eta barazki feria garrantzitsua ospatzen zela ere kontatzen da, Elgoibarko feria baino lehenagokoa. "Elgoibarren ere Trinitateak ospatzen dituzue, baina ez daukazue ez emitarik, ez santurik, ez kalerik.. ezer ere ez. Zuen jaiak, gurea da. Elgoibarko Trinitate jaiak Mendaron daukate jatorria. Aintzina, elgoibartarrek eramane zuten feria hau Elgoibarrera" azaldu digu Mendarozabalgo Trinitate Jaietako jai batzordeko kidea



den "Kapain"ek. "Dozena bat lagun izango gara jai batzordean eta aurtengoa gure taldeak jaiak antolatzen dituen 48. aldia izango da. Akorduan daukat 16-17 urte genituenean, jaiak antolatzeko ardura hartu genuen lehen urtean, soinu-jole eta aizkolari bat ekartzeagatik 108 pezetako aurrekontua atera zitzaigula. Elgoibarko Udalera joan ginen diru hori kobratzera, baina esku hutsik itzuli ginen, garai hartan alkatea zen Ajubitat Udala egoera ekonomiko larrian zegoela eta ezezkoa eman baitzigun. Nola edo ahala gure poltsikoe-tatik ordaindu behar izan genuen.

Meza Santu osteko hamaiketakoak, Mendaroko Abesbatzaren aktuazioak eta Laja eta Landakandaren saioak estimazio handia dutela azaldu digu "Kapainek": "Laja eta Landakanda, esaterako, 40 urtean etori dira eta jende asko erakartzen dute, baita kanpotik ere. Mañukorta bert-solaria urtero etortzen da mezia entzun eta Laja eta Landakandarekin bazkaldu eta afaltzera. Jaiak asko janzten dute".

TRINITATE JAIEN EGITARAUA

Ekainak 10 (zapatua)

17:00 Zuhaitza jasotzea, kanpai jotzea eta etxapligoak

Ekainak 11 (domekia)

10:00 Mendaroko Txistularien kalejira

11:30 Meza Santu Nagusia Trinitateko basilikan. Mendaroko abesbatzak abestua. Meza amaieran, Mendaroko Abesbatzak eskainitako kontzertua

Ondoren, Ospas eta Sabin txistulari eta trikitilariak

12:30 Euskal Kirolak

Aizkolariak: Luis Txapartegi (Aizarna) eta Fausto Mugerza (Mutriku)

Harrijasotzailea: Telleria gaztea (Lasarte)

Ekainak 12 (astelehena)

11:00 Meza Santua

12:00 Ikastolako haurren bertso saioa

12:30 Trikitixa Eskolako dantza erakustaldia

Ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariekin hamaiketako umoretsua

14:30 Herri bazkaria Toki Alai jatetxean

20:30 Herri Afaria Aizpe Elkartearen, Laja eta Landakanda eta bertsolariekin

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, **opariak** eta deskontuak.
4. Promozioetan **abantailak**



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



ANE GOIKOETXEA

ESPERIENTZIA ESKOLAKO IKASLEA

«Gauza berriak ikasteko asmoz eman nuen izena Esperientziaren Eskolan»

Debegesak bigarren urtez antolatu du Debabarreneko Esperientzia Eskola, eta Ane Goikoetxea elgoibartarra izan da aurtengo ikasleetako bat. 50 urtetik gorakoentzako eskola da eta bertan parte hartzeko ez da titulaziorik behar. Hiru helburu nagusi ditu: garapen pertsonala sustatzea, errealitate soziala aztertu eta ulertzea eta adin talde honek gizartean aktibo mantentzea. Ane Goikoetxeak bere esperientzia kontatu digu.

► Nola animatu zinen Esperientziaren Eskolan izena ematera?

Prensatik jaso nuen Esperientziaren Eskolaren berri, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Gauza berriak ikastea nahi nuen. Izena ematea erabaki nuen eta ez naiz damutzen, oso gustura ibili naiz. Irailean hasi genuen kurtsoa eta aste honetan bukatu dugu. Astean hiru egunetan joaten ginen, bakoitzean hiru ordu. Azkenean ordu pila bat dira.

► Zein ikasgai izan dituzue?

Denetarik izan dugu. Literatura, psikologia, historia, ekonomia... gehienbat Debabarrenari lotutako gaiak eman dizkigute. Historia eta geografian igartzen nuen nik hutsune handiena, eta orain badakit zertxobait gehiago. Irakasle oso onak izan ditugu.

► Gaztetan izan al zenuen ikasteko aukerarik?

Ez gehiegi. 12 edo 13 urterekin laga nituen ikasketak Irakurtzen, idazten eta zenbakiak ikasi genituen, baina gehiagorik ez. Lana utzi nuenean Eskola Graduatua atera nuen eta EGA ere gaingitu nuen. Beti izan dut ikasteko gogo.

► Kurtso bukaeran azterketarik izan al duzue?

Ez dago azterketarik kurtso bukaeran, eta ezta sartzeko ere. Ez dizute ezer eskat-

zen. Esperientziaren Eskolan izena emateko baldintza bakarra Debabarrenekoa izatea eta 50 urte eginda edukitzea da. Kurtso amaierako lan bezala, hiru edo lau proiektu egitea eskatu digute. 25 lagun gaude gure gelan eta denon artean proiektuak egiten ari gara. Ez daukagu ohiturarik eta ez da erraza, baina denon artean ideia politikak ateratzen dira. Gero, proiektuak interesgarriak badira, finantzazioa lortu beharko da martxan jarri ahal izateko.

«Denetarik ikasi dugu, irakasle oso onak izan ditugu»

► Kurtso honek ba al dauka jarraipenik?

Kurtsoa urtebetekoa da. Saiatu ziren bi urtera luzatzen, baina oso garesti ateratzen zen. Hala ere, iazko urteko ikasleek Ikasten izeneko elkarte sortu dute. Elkarte

honek nagusientzako ekintza desberdinak antolatzen ditu, eta gu ere hor sartuko gara aurtan. Gaur egun gero eta jende nagusi gehiago dago, eta jende hori osasuntsu edukitzea nahi dute. Horretarako burua lantzea oso garrantzitsua da. Honek ekintzekin nagusiak osasuntsuago mantentzea lortzen da. Batzuk proiektuetan sartzen dira eta modu aktiboan mantentzea lortzen da.

► Ikasteaz aparte, egin al duzue beste zerbait?

Bai, irteera interesgarriak egin ditugu. Bata, Debabarrenean zehar egin genuen. Eibar, Elgoibar, Astigarribia, Lastur, Deba, Mutriku... herri bakoitzak daukan historia ezagutu genuen. Oso ondo egon zen. Legazpi eta Beasain aldera joan ginen beste behin, plastikoa nola birziklatzen den ikusteko aukera izan genuen Legazpin, eta Beasainen zabortegea ikusi genuen. Azken irteera, kurtso amaieran egin dugu Nafarroako Mendigorria eta Eunate ingurura. Oso ondo ibili ginen.

► Ba al daukazu ikasten jarraitzeko asmorik?

Momentuz ez. Nahiko nekatuta bukatu dut kurtsoa, eta orain oporrak hartzeko irrikitan nago. Urrian itzuliko gara proiektuak bukatzera eta ahal badugu martxan jartzera. Ea ondo ateratzen zaigun!

MANU IZAGIRRE

«Saharaien kanpamentuak desagertzen badira, saharaiak desagertuko dira»

Mikel Razkin idazleak (1976, Iruña) eta Iñaki Vergara argazkilariak (1975, Donostia) elkarlanean egin duten "Saharaiak: 30 urte baino gehiago justizia aldarrikatzen" liburuan oinarritutako argazki erakusketa interesgarria dago egunotan -ekainaren 10era bitartean- Kultur Etxean ikusgai. Saharai herriaren eta Euskal Herriaren artean badago nolabaiteko lotura edo konexio berezia, eta asko izan dira saharaien egoeraz kezkatu diren euskaldunak. Manu Izagirre elgoibartarra da horietako bat. Modu bitxian iritsi zen Manu Tindoufeko errefusiatu kanpalekuetara, eta orain bertako bizilagunek bizi duten egoera penagarria salatu nahi du.

► 30 ikaslerekin joan zinen saharaien artera

Bai, Sopolako Ander Deuna Ikastolan irakaslea den lagun bat daukat eta haren bitartez joan nintzen 2004ko abenduan.

Ohiko tokietara joan beharrean Ikas Bidaia Sahara egitea erabaki zuten DBHko azken ikasturteko ikasleek, eta ni, ikasle on ibileraren bideoa grabatzera joan nintzen. Joan aurretik ikasleek zituzten usteak, astebetean kanpamentuetan bizitakoak, eta zirkulua ixteko, ondorenean geratu zitzaizkien inpresioak grabatu nituen.

► Non izan zineten zehazki?

Marokoarrek Mendebaldeko Sahara inbaditu zutenean beraien lurraldetik ihesi atera behar izan zuten eta Argeliak lur sail bat laga zien desertuan. Tindouf hiria inguruan, lau wilaya edo probintzian banatuta daude errefusiatuen kanpamentuak. Beraien lurraldeko hiriburuen izenak jarri dizkiete; El Aaiun wilayan egon ginen gu.

► Ikas bidaia oso ezberdina egin zuten.

Bai, oso. Urtebete pasa zuten bidaia prestatzen. Dirua batzen batetik, eta saharaien inguruko informazioa jasotzen bestetik: hitzaldiak entzunez, Frente Polisarioko jendearekin kontaktuak, e.a. Gainera, munduan dauden beste gatazka batzuk ere ikutu zituzten: Irak, Iran, Palesti-

na, e.a. Gaian buru-belarri sartu eta nahiko jantzita abiatu ziren. Eta ez ziren esku hutsik joan; ordenagailu eta material informatiko sorta ederraz homitu zuten Olof Palme izeneko ikastetxea.

► Zer aurkitu zuten ikasleek desertuan?

Han aurkitu genuenak jokoak kanpo laga gintuen guztiok: errefusiatu kanpamentuetako bizi baldintzak, desertuaren erdian, oso gogorak dira. Hala eta guztiz, kanpotik datozenak ezin hobeto hartzen dituzte, daukaten apurra %200ean ematen baitute. Kanpotarrak tradizioz hartzen dituzte esku zabalik, eta beraien seme-alabak hemen jasotzen dituzten familiak eskertzeko modua ere bada. Egiten duten esfortzua gehiegizkoa da, ordea, euren eguneroko errealitatea ez baita erakusten dutena.

► Grabatu zenuen bideoak sari bat lortu zuen Lekeitioko jaialdian.

Bai, dokumental arloko bigarren saria. Dena dela, bideoarena bigarren mailan geratu zen. Saharaien artean gustura ibiltzea zen helburua, eta esperientzia oso aberasgarria izan zen guztiarentzat. Ikasleak oso ikututa itzuli ziren. Alabaina, grabatutako materialarekin zerbaitek luze-eragoa, dokumental modukoa, egiteko asmoa daukat. Lehen bidaian espektatiba batzuekin joan nintzen eta ez ziren bete, ikasle on ibilerak jarraitzeko astia bakarrik izan bainuen. Hortaz, saharaien testigantzak jasotzeko nere kasara itzultzea erabaki nuen. Tokia eta jendea ezagutzeko abantaila izan zen. Oraindik mantentzen dut beraien kontaktuak.



► **Esperientziak ikasleak ikututa laga dituela zenioen.**

Bai, ez dute erraz ahaztuko. Guk daukagun erosotasunik gabe (dirua, internet, mobila...) bizi den herri batekin topo egin zuten. Saharaviak familia baloratzeko duten modua asko goraiatu zuten. Hemen askoz indibidualistagoak garela zioten; nagusiak batetik, gazteak bestetik..Etxeok moduan hartu zituzten, eta itzuleran, hango familia botatzen zuten faltan, bigarren familia. Diru eta baliabide material gehiago dugun arren, komunikazio aldetik, hartu-emanetan, hura askoz aberatsagoa dela esaten zuten ikasleek. Munduan beste balore batzuk ere badirela konturatu eta ezer ez daukaten beraien moduko gazteak zoriontsuak izan daitezkeela ikusi dute. Ahatik, ikasle batzuk Saharako problematikarekin dexente inplikatu dira. Elkarte bat sortu dute eta beraien esperientzia azaltzeko hitzaldiak ere eman dituzte. Gainera, Sopelako ikasle hauen esperientzia ikusirik, Zumaiaiko ikasle talde bat ere joan da, eta datorren urtera begira, Arrasaten ere ari dira prestatzen.

► **Hirugarren aldiz itzultzeko asmorik?**

Saharavi errefuxiatuen kanpamentuak ez dira oporretara joateko lekurik aproposena. Hara joatekotan laguntzera joan behar da; zer gertatzen ari den zabaldu eta salatzeke. Komunikabide bakan batzuk kenduta, orokorrean, isilpean mantentzen den gaia iruditzen zait. Saharaviak de-




«Desertuan
aurkitu
genuenak
jokoz kanpo
laga gintuen»

sertu gordinean ahaztuta eta erbesteratuta daude. Nazioarteko laguntzarekin bizi-rauten dute eta irtenbide politikoak ez dirudi batere erraza. Beraiek mordo bat eskertzen dute kanpotik jendea joatea. Ikasle gazteak joan izana egunero eskertzen zuten eta Frente Polisariokoak oso animatuta zeuden. Beraien kausa zabalteke garrantzitsua dela dakite-eta.


► **Zer modutara lagundu daiteke hemendik?**

Udan ume saharaviak hartzea edo janaria eta medikamentuak bidaltzea oso garrantzitsua da, baina bizi duten egoera salatzea are garrantzitsuagoa da. Laguntza asko, ONG asko... baina guzti horrekin egoera bere horretan perpetuatzea besterik ez da lortzen. Azkenean jorkaldi politiko bat dela ematen du. Han dauden bitartean herria desintegratzeko aukerak areagotzen dira, bizi baldintzak oso-oso zailak baitira, eta gero eta saharavi gehiago dago munduan zehar barreiatuta. Eta noski, saharavi errefuxiatuen kanpamentuak desagertzen badira, saharaviak desagertuko dira, ziur aski. Borrokan jarraitzeko motiborik gabe geratuko litrateke. 30 urte daramate desertuan eta beraien herrialdera independentzia lortuta bakarrik itzuliko dira, ez bestela. Hortaz, konziente dira euren egoera oso zaila dela, eta desertuan biziraun behar dutela.



ESKALADA ETA MENDIA

Josune Bereziartuaren ikus-entzunezkoa gaur, Musika Eskolan



Mendi ikutuarekin datorkigu asteburua. Hasteko, gaur, hilak 2, Josune Bereziartua (1972, Ordizia) eskalataileak bere unerik onenak, alegia, 1998tik 2005era bitarteko irudirik onenak batzen dituen DVDa aurkeztuko du Musika Eskolako auditorioan (22:00). Munduko kirol-eskaladaren historia markatu duten eskaladen laburpena da. Emakumeen munduko lehen 8c graduko eskaladatik hasi eta azkeneko ibilbide entzutetsuetaraino. Kuxtaren eskutik eta Morkaiko M.E.ren, Udalaren eta Udal Kirol Patronatuaren la-

guntzarekin iritsiko da munduko emakumezko eskalatzailerik onena Elgoibarrera.

Finalista Eguna

Bestalde, Finalista Eguna domeka honetan ospatuko da San Pedron. 78 neska-mutilek domina bana jasoko dute urtean igotako mendiak saritzeko. Goizeko 10:30ean aterako dira Plaza Handitik San Pedrora oinez igo nahi dutenak. Domina banaketa 12:30ean hasiko da eta ondoren bazkaria eta haurrentzako jolasak egongo dira Atxutxiamaikaren eskutik.

Bizkarra hondatu gabe kirola egitearen inguruko hitzaldia

Michel Marnier doktoreak (kiropraktikoa eta bizkarrezurrean aditua) "Kirola nola egin bizkarra hondatu gabe" izeneko hitzaldia eskainiko du ekainaren 6an, martitzenean, Kultur Etxean. Udal Kirol Patronatuak antolatutako hitzaldia 19:00etan hasiko da. Besteak beste, bizkarrezurreko diskoen degenerazioan laguntzen duten faktoreei eta bizkarrezurraren funtzioei buruz berba egingo du. Teoria hutsean geratu gabe, bizkarrentzako ariketa onuragarrienak eta kaltegarrienak zeintzuk diren azaduko ditu, eta elikaduraz ere jardungo du.

Euskal Ligan jokatu dute datorren denboraldian Urnobotza eta Pneumax eskubaloit taldeek

Elgoibarko eskubaloit taldeen urtea da aurtengoa. Urnobotza (kadeteak) eta Pneumax (jubenilak) eskubaloit taldeek mailaz igotzea lortu zuten joan zen asteburuan. Kadeteek Leioako Askartza taldearen aurka 25 eta 13 irabazi zuten, eta emaitza honi esker, liga txapelketa irabazi dute. Pneumax taldekoek, berriz, Askartzaren aurkako ligako azken partida 20 eta 29 galdu zuten arren, sailkapen nagusiko 5. postuan amaitu dute. Bi taldeen puntuak kontutan hartzen direnez, ordea, biak ala biak arituko dira datorren denboraldian Euskal Ligan. Bi taldeek eskubaloizaleen omenaldia jasoko dute zapatu



honetan Tecnifuellek eta Hondarribiak jokatu behar duten partidua hasi aurretik (19:30). Senior mailako taldearentzat ere denboraldiko azken partida izango da.



David Conde elgoibartarrik bizkorrena Aizkorriko maratoian

Hiru elgoibartarrek parte hartu zuten V. Zegama Aizkorri Maratoian, hirurak ere ohikoak gogortasun itzelezko proba honetan, eta David Conde izan zen, oraingoan ere, helmuga gurutzatzen lehen elgoibartarra. Conde 54. postuan (5:00:49) sailkatu zen, Xabier Bergaretxe 63. postuan (5:07:32) eta Asier Arrieta 135. postuan (5:38:23). Hirurek iaz baino denbora eskasagoak egin zituzten, baina joera orokorra izan zen hau. Eguraldi

bero eta eguzkiak eragina izan zuen eta 42 kilometroak berez direna baino gogorragoak bihurtu ziren. Jon Revert elgoibartarra ere parte hartzekotan zen, baina lesionatuta dago. Ricardo Mejja mexikarra izan zen irabazlea (4:03:41) eta Rob Jebb ingelesa, iazko irabazlea eta errekorren jabea (3:53:18), irabazlearengandik 4 segundura geratu zen. Guztira 331 parte hartzailek lortu zuten proba amaitzea.

JOSEBA IGARTUAREN AGURRA

Joseba Igartuak omenaldi hunkigarria jaso zuen agur partiduan

U ne hunkigarriak bizi izan ziren, joan zen zapatuan, Mintxetan, Joseba Igartua futbolariaren agurrean. Haundiko jokalaria nahikoa dela iritzi dio, eta 34 urterekin futbol jokalaria izateari lagatzea erabaki du, futbol munduan esan ohi den moduan botak txintxilikatu ditu.

Lagun eta familiartekoen babesean bizi izan zituen ibilbide luzeko azken uneak eta Jose Luis Insausti presidenteak klubaren urrezko intsignia eman zion, Haundik Arenasen aurka jokatu beharreko partidaren atarian. Honez gain, bizkarrean "Buru" ize-na zeraman kamiseta ere jaso zuen Igartuak opari gisa.

Bestalde, zapatuan, ekainaren 3an, Elgoibarko Udalak Club Deportivo Elgoibaren eskura utziko du Sigmako esparrua (aparkamendu berria) urtero denboraldi amaieran antolatzen duten afaria egin ahal dezaten. Bertara 200 lagunetik gora joatea espero da. Afarian zehar gol gehien



sartu dituztenak eta erregularrenak izan direnak sarituko dituzte, klubak eskaintzen dituen garaikurren bitartez.

Raquel Avila euskadiko bizkorrena 80 metrotan



Raquel Avila, Mintxeta Atletismo Taldeko sprinterra da 80 metrotako Euskadiko txapeldun berria. Joan zen domekan Tolosan jokatu zen Euskadiko Atletismo Txapelketan eskuratu zuen Raquelek titulua infantil mailan. Atletismo harrobia hasi da fruituak ematen. Joan zen astean Borja Diezek Gipuzkoako txapeldun atera zuen 600 metrotako lasterketan, eta ziur, ez direla atleta gazte hauek emango dizkiguten azken poztasunak izango.

Ateak Ireki Kirolari egitasmoa Kiroldegian eta Mintxetan

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxetako ateak irekiko dizkio kirolari igande honetan, ekainaren 4an. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara Olaizaga kiroldegiko igerilekuan haur parkea egongo da, puzgarrie-

kin, eta kantxan tirolina, rapela eta eskalada probatzeko aukera izango dute haur eta helduek. Nahi dutenek Kiroldegiko saunak, squash eta frontoi txikia eta Mintxetako futbol zelaiak ere erabiltzeko aukera izango dute. Sarrera doan izango da.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 1 - Arenas 1 (3. maila)

ESKU PILOTA

Aretxabaleta 22 - Lagunak (Anso./Iri.) 14 (Nag.)

Lagunak (Atxo./Arri.) 22 - Bergara 6 (Jub.)

Lagunak (Liz./Sal.) 22 - Aretxabaleta 9 (Kad.)

BOLOAK

Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa

Elgetako Bolatokian

1- Luis Jabier Oregi (Asola Berri) 6 txirlo

2- Jabier Osoro (San Migel) 5 txirlo

3- Angel Ibarluzea (San Migel) 4 txirlo

ESKUBALOIA

Zarautz 24 - Tecnifuelle 26 (Senior mut.)

Pagoaga 20 - Groseko 27 (Kad. nesk.)

Umobitza 25 - Askartza 13 (Kad. mut.)

Pneumax 20 - Askartza 29 (Jub. mut.)

Pulpo 19 - Lojantzi 21 (Sen. nesk.)

[AGENDA]

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 3

19:30 Tecnifuelle - IT Hondarribia (Senior. mut.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena 05/06

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	73
2. Navarrete	62
3. Iribar	56
4. Guinea	41
5. Arruti	32
6. Loren	28
7. Orue	28
8. Etxabe	23
9. Igartua	23
10. Iker Martinez	22
11. Alex Del Rio	22
12. Kerman	17
13. Arillaga	12
14. Duñabeitia	9

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai Urasandin. Berritzeko. 3 logela, sukalde, komuna.

677 772 920

▶ Etxea salgai Madalan. 2 logela, garajea eta trasteroa.

678 93 92 41

▶ Etxea salgai Sigman. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Egoera onean. **607 253 909**

▶ Pisia salgai Merkatu Plaza alboan. Logela bat, egongela, komuna, sukalde eta ganbara itxia. Bizitzera sartzeko moduan.

943 74 15 96/677 389 601

▶ Pisia salgai Errosario kalean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. **943 740265 (gavez deitu)**

▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berriua. 168.200 euro.

943 74 84 48/

636 57 11 11

ALOKAIRUA

▶ Luz Saint Sauver-en 4-5 pertsonentzako apartamentua alokatzen da uztaile eta abuztuan. Asteka.

626 453 056

▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua, bi logela. **943 20 30 83**

▶ Gasteizen pisua osatzeko lagun bat behar da. Ondo kokatua, egoera onean. **945 27 42 83 (mezua laga)**

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan. **943 53 17 54**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Kotxea eta motorra kabitzen dira. 55 euro.

659 38 64 03

▶ Ermuaranbide 7an garajea salgai. **699 45 29 98**

▶ Lokal bat alokatzen da erdialdean. 80m². Hutsik. **646 161581**

[AUTOAK]

▶ Volkswagen Golf TDI autoa salgai. 102 zaldi. 2005ekoa. 22.000km. Egoera oso onean. 2007ko maiatzera arteko bermea. **665723540/615765515**

[BESTELAKOAK]

▶ Mendiko bizikleta salgai. Canondale. Egoera onean. Rebisioa pasatuta. Karbonozko manilarra. **658 74 32 49**

▶ Kotxeo llantak saltzen ditut. 17 pulgadatak. Egoera onean.

665 72 62 71

▶ Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilteraza. 10km/orduko. Gurpil sendoak. Iraulgaitza. Prezioa adosteko.

635 73 58 15

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko prest.

666 814 916

• Emakume euskalduna pertsona nagusiak zantzeko prest. Egunez eta gavez. **943 74 44 33 (Kontxi)**

• Mutila lanerako prest: kamarero, igeltsero laguntzaile...

699 800 498

• Emakume lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo interna moduan. **646235195**

• Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo interna moduan. **943 53 19 03**

• Neska gaztea lanerako prest. Uztailetik aurrera. Garbiketa lanak, kamarera, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna. **666 032715**

• Emakume nagusiak edo gaitxoak zaintzeko prest. Egunez edo gavez. Orduka ere bai. Esperientziaduna. **943 17 28 96 (Mertxe)**

• Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest. **686 23 47 86**

• Emakume garbiketa lanetarako prest. Lantegiak, lokalak, etxeak... **639 42 34 93**

• Mutila edozein lan egiteko prest: obrak, mekanika lanak...

685 785 921

• Emakume lanerako prest: garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzen. **943 74 03 67**

• Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. **685 730 604**

• Neska gaztea lanerako prest: kamarera, umeak edo nagusiak zaintzen...

638 716 987 (Patricia)

• Emakume nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **699 609 190**

ESKAINITZA

• Euskaraz dakien pertsona behar da bi ume zaintzeko ekaina eta uztailean. **685750083 (20:00etatik aurrera)**

• Sukaldaria behar da taberna batean pintxoak egiteko. Goizez. **670 250 429**

• Euskaraz dakien pertsona behar da ekainean eta uztailean ume bat zaintzeko. **685750083 (20:00etatik aurrera)**

• Kamareroa behar da. **943 74 16 00**

• Durangoko Barbera Euskara Elkartek udalekuetarako aisialdiko begiraleak eta zuzendariak behar ditu. Uztaileko. **94 620 19 18 (Rakel)**

• Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko. **943 74 14 61**

• Kamareroak eta sukaldariak behar dira tabernan lan egiteko. **652 778 260 / 652 77 82 10**

• Kamareroa behar da tabernako. **943 74 12 30**

• Kamareroa behar da taberna lasai batean lan egiteko. Adinak ez dauka garrantziarik. **669 09 60 71**

• Kamareroa behar da. **699 005 135**

Erref. 162006006336

• Mendiarako enpresak tomurako langilea behar du.

Erref. 162006006605

• Errezilgo enpresak mekanikoa ingeniari teknikoa behar du.

Erref. 162006006162

• Elgoibarko enpresak tomurako langilea behar du.

Erref. 162006006843

• Eibarko enpresak telefono zentralerako langilea behar du.

Erref. 162006006806

• Arrasateko enpresak delineatzailea behar du.

Erref. 162006006768

• Mutrikuko enpresak arotza behar du. Erref. 162006005194



• Eibarko enpresak diseinuko ingeniari teknikoa behar du. Erref. 162006005268

• Eibarko enpresak zenbakizko kontroladun tomurako langilea behar du. Erref. 162006005680

• Bergarako enpresak harategiarako langilea behar du. Erref. 162006006167

• Debako enpresak fresatzeko makinarako langilea behar du. Erref. 162006006997

• Zumaiako enpresak bame dekoratzailea behar du.

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentrura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• 1951koen kinto bazkaria ekainaren 17an izango da Sigma jabetxean. Interesatuek 60 euro sartu ondorengo kontu korrontean **3035 0007 260071037383** ekainaren 5erako.

• Klarinetea galdu dut. Maleta eta guzti. Plaza inguruan. **943 74 10 77 - 943 74 17 43**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Iosu "Nano"**ri. Egun ona pasako zenuela espero dut. Judithen partez.



▶ Zorionak **Izziar** maiatzaren 25ean zure eguna izan zelako. Ane, Idoia eta Goraneren partez.



▶ Zorionak **June** ekainaren 4an 4 urte egingo dituzulako. Aitxa, amama eta tioren partez.



▶ Zorionak **Jon** hilaren 28an 9 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Malenaren partez.



▶ Zorionak **Bitti** gaur 10 urte egin dituzulako. Etxekoan partez.



▶ Zorionak **Jone** gaur 8 urte egin dituzulako. Ziur oso ondo pasatuko duzula!




▶ Zorionak **Ander Aranbari** domekan 14 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, anaija jonen partez.



▶ Zorionak **Gorka** hilaren 5ean 6 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Familiakoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Aitana** zure 1. urtebetetzean. Gurasoen partez.



▶ Zorionak **Iker** astelehenean 3 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki, lanireren partez.



▶ Zorionak **poxpolin** pasaden igandean 7 urte bete zenituelako. Muxu bat denon partez, bihotza.



▶ Zorionak **Lorea**, gure artean zaude dagoeneko. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Beñat eta Amets** atzo 4 urte egin zenituztelako. Etxekoan eta batez ere, aitiita eta amaman partez. Goxo asko jan!



▶ Zorionak! **bikote** zuen urtebetetzean. Patxo handi bat Ariane eta amatxoren partez.



EKINTZAK

"UDA 2006" DONOSTIAKO KIROL JARDUERAK

Donostiako Udalako Kiroletako Udal Patronatuaren eskutik Kirol jarduerak Donostian: Surfa, igeriketa, piraguismoa, tenisa, padela, body board-a, parapentea, arraunketa, bela, hockey-a, sgrima, boleibola... Izen-emateak ekainaren 1ean, 09:00etan. Epea: Irailak 1. Informazioa: 943 481850

IKASTAROAK

SOLDATEN ETA GIZARTE ASEGUEN KUDEAKETAKO ADITU IKASTAROAK

Amara Formación-en eskutik. Baldintzak: Langabetua izatea. Iraupena: 309 ordu, uztailearen 3tik azaroaren 28ra (15:00-19:00). Izena ematea: INEM-en bulegoetan. Epea: Uztailak 3 Informazioa: 943 453893

LEHIAKETAK

ELGOIBARKO KIROL ARGAZKIEKIN LEHIAKETA

Elgoibarko Udalak (Gazteria Saila eta Udal Kirol Patronatua) eta Ongari argazkilarik elkarrekin Elgoibarko Kirol argazkien lehiaketa antolatu dute. Edozeinek har dezake parte. Gaia: kirola arlo guztietan. Epea: 2006-07-21. Informazioa: 943 74 44 15

LANA

PERKUSIOKO IRAKASLE BAT BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKORAKO

Oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Erdi-mailako irakasle-titulua perkusioko espezialitatean. Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: Ekainak 7. Informazioa: 943 028050

KONTABILITATEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARI 1 SORALUZETAKO UDALERAKO

Lehiaketa-oposizioa. Baldintzak: Diplomatu izatea edo lehen hiru kurtsoak egin da izatea eta 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: 2006-06-06 Informazioa: 943 753043

UDALTZAIN BAT BEASAINGO UDALERAKO

Beasaingo Udalean udaltzain-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Eskola graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. Baldintza fisikoak betetzea. 2. hizkuntza-eskakizuna. Epea: 2006-06-06 Informazioa: 943 028050

AU-PAIR ALEMANIARAKO

Elgoibarko Gazte Informazio Guneak Alemanian Au-Pair bezala lan egiteko pertsona bat eskatzen du lehenbailehen hasteko. 2 edo 3 hilabetetarako (denbora gehiagorako izan daiteke). Baldintzak: 18 urte izatea. Alemaneraren oinarritzeko ezagutza izatea. Informazioa: 943741461/943742334

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461

5 Asteleheneetik ostiralera 16:00-19:00
Asteazkenetan Biluzik zerbitzua



[OKINDEGIA]



4 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

- GUARDIA 24 ORDUZ**
 2 Fernandez
 3 Etxeberria (Santa Ana)
 4 Etxeberria (Santa Ana)
 5 Zabaleta
 6 Etxeberria (Errosario)
 7 Ibañez
 8 Bidasolo
 9 Etxeberria (Santa Ana)

*Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

TXANKAKUA MERKATARI ELKARTEA

- Ekainaren 1etik 30era **%5**eko deskontua TXANKAKUA TXARTELArekin ordainduz gero. (Elektronika eta janari dendetan izan ezik).
- Ekainean ere Elgoibarko gasolindegian **%5**eko deskontua erregaietan.
- Gogoratu 2006ko uztailaren 1etik 2007ko apirilaren 30era arte **%2**ko deskontua izango duzula Elgoibarko gasolindegian!!



DEBABARRENA EKINEAN

"Ekintzailearen eguna"

Izpiritu ekintzailea etengabe bultzatzeko apustua guztiona da, zure ideiak enpresa bihurtzen lagunduko dizugu.

Berrikuntza eta Enpresa Salla
DEBEGESA, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte
www.debegesa.com • pymes@debegesa.com
 Tel.: 943 82 01 10



Europa
Gizarte
Fondoa



[2 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urteik 6 urtera bitarteko haurrentzat (euria bada, hurrengo barixakura atzeratuko litzateke)
Plaza Handian

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian

19:30 TOPAGUNEKO EKITALDIA TALDE SINATZAILEEKIN

Madalako Parkean

21:00 PILOTA JAIALDIA MENDARON

Goñati pilotalekuan

22:00 JOSUNE BEREZIARTUA ESKALATZAILEAREN IKUS ENTZUNEZKOA

"Josuneren momenturik onenak"
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: Kutxa, Morkaiko

[3 ZAPATUA]

11:30 PLAZARATZE EGUNA

Plaza Handian
Antolatzailea: Herri Eskola

11:00 IKASTOLAREN EGUNA

Elgoibar Ikastolan
Aitxorarren bila, Olinpiadak, Herri Kirolak, musika eta dantza, e.a.

13:30 EUSKAL PRESOKAK ETXERA ELGOIBARKO TOPAGUNEAREN AURKEZPENA

Plaza Handian

16:30 ARGAZKI LEHIAKETA

Goñati pilotalekuan (MENDARO)
Antolatzailea: In Leike

17:00 SAN PEDROKO BOLO TXAPELKETA

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

[4 DOMEKIA]

10:00 "ATEAK IREKI KIROLARI"

Olaizaga Kiroldegian

12:30 FINALISTA EGUNA

San Pedron

[6 MARTITZENA]

19:00 HITZALDIA

Gaia: Bizkarrari kalte egin gabe kirola egitea
Hizlaria: Marnier doktorea,
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

[7 EGUAZTENA]

19:00 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian
Ekainaren 8an eta 9an ordu berean

[8 EGUENA]

19:00 PAKO JUARISTIRI OMENALDIA

Musika Eskolako Auditorioan
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra, AEK Euskaltegia eta Udal Euskaltegia.

22:00 GAZTE KAIOLATIK AT 1. ALEAREN EMANALDIA

Iratxo tabernan

[9 BARIXAKUA]

22:00 PILOTA JAIALDIA

Ikastolako frontoian
Lagunak - Arrasate (Kadeteak)
Lagunak - Eibar (Jubenilak)
Profesionalak:
Mikel Goñi - Olanar / Ubera II - Zezeaga
Sarrerak: Aurrez Olaizaga
Kiroldegian eta egun berean
Ikastolako frontoian.
Prezioak: eserlekuak (10 euro), zutikakoak (7 euro)
Antolatzaileak: Udal Kirol Patronatua eta Lagunak Pilota Eskola

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Volver»

2, barixakua: 22:15
3, zapatua: 19:30-22:15
4, domekia: 19:30-22:15
5, astelehena: 21:30
«Plan Oculto»
10, zapatua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El Codigo Da Vinci»

2, barixakua: 19:30-22:15
3, zapatua: 17:00-19:45-22:30
4, domekia: 17:00-19:45-22:30
5, astelehena: 19:30-22:15
6, martitzena: 19:30-22:15
7, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El caso Slevin»

2, barixakua: 19:30-22:15
3, zapatua: 17:00-19:30-22:15
4, domekia: 17:00-19:30-22:15
5, astelehena: 19:30-22:15
6, martitzena: 19:30-22:15
7, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

SINOPSISIAK

«Volver»

Zuzendaria: Pedro Almodovar
Antzezleak: Penelope Cruz, Carmen Maura
Madril. Raimunda ama gaztea da; bizia eta ederra. Senarra langabezian dago eta alaba nerabezaroaren atzetan. Ekonomia ez doa ondo eta lan bat baino gehiagotan ari da. Ez dio axola, emakume gogorra da, baina aldi berean, emozionalki ahula. Hautzarotik sekretu bel-durgari bat gordetzen du. Sole, bere ahizpak, herrian bizi den Paula izeba hil dela esango dio telefonoz. Hiletara joatekotan dagoela, ezusteko handia aurkituko du etxeko sukaldean.

Atzera hegira



1960 urteko erretratu zahar hau **Ion Ortuostek** laga digu. Argazkia Gure Bide elkarte inguruan aterata dago. Gure bide elkarte sortu berri zegoen orduan, 1959. urtean inauguratu zen-eta. Garai hartan txirindularitza pil-pilean zegoen eta Gure Bidek lan handia egin du kirol honen inguruan. Dirudienez, egun hau garrantzitsua izan zen, argazkian ageri diren guztiak oso dotore ageri dira-eta, korbata eta guzti! Gogora ditzagun zein diren argazkikoak:

Goian, ezkeretik eskumara: **Oskar Elgezabal** (bizkaitarra, txirindulari ohia, sprinter oso ona, Espainiako Txapeldun ohia eta 4. Munduko Txapelketa batean), **Jose Ramon Ortuoste** (), **Jose Antonio Gorostiza** (), **Anton Barrutia** (Gure Bide Elkarteko lehenengo ziklo-kros lasterketako irabazlea), **Bittor Ortuoste** ().

Bigarren ilaran: **Ion Ortuoste**, **Jesus Astigarraga** () (Memorial Txusko bere oroimenez egiten da), **Jose Luis Juaristi**, **Julian Juaristi** eta **Juanito Gorostiza**.

Jaika
jateetxea

Menu bereziak 17 €-tik • Karta
Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29

karkizano
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49








Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Gloria

Upai Zaharra, behea • Tel.: 635 74 71 45



 okindegia

-  Mota guztietako ogiak
-  Delikatesen produktuak
-  Pastelak eta pastak
-  Urdaitegia
-  Ardoak eta likoreak
-  Baserriko produktuak
-  Egunkariak



*Zatoz gure
denda berrira!*